



HIZKUNTZA POLITIKA

1

1


1. **Sarrera**

- 1.1. Hizkuntza Politika
- 1.2. Jarduera-ildoen eskema
- 1.3. Aurrekontua

2. **Jarduera-ildoak**

- 2.1. Hizkuntza planifikazioa Administrazioan
- 2.2. Euskararen sustapena
- 2.3. Ikerketa eta koordinazioa

3. **Etorkizuneko erronkak**



1. Sarrera

1.1. Hizkuntza Politika

Euskara herritarren ondarea da, eta euskara ezagutzeak eta erabiltzeak gure arteko elkarbizitza sendotzen eta aberasten du. XXI. menderako hizkuntza politikaren oinarriak dokumentuan esaten den bezala, beharrezkoa da hizkuntza politika bat izatea, bi hizkuntzen arteko estatus-berdintasuna ez delako berez lortzen.

Ahal den guztian gizarte elebidun izatera kementsu doan gizarte bat osatzea da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren helburua, era horretan gure herritar guztiek aukera berberak izan ditzaten, eskubide berberak izan ditzaten eta beren bi hizkuntzetan eskatu eta entzun ahal izan dakien. Herritarrek egiten duten hizkuntza aukeraren errespetua bultzatzen da, era horretan herritar guztien hizkuntza eskubideak zainduz. Arauaren eta strategiaren ikuspegitik, Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Legea eta, batez ere, Euskararen Aholku Batzordeak formulatutako XXI. Mende Hasierako Hizkuntza Politikaren Lehentasunezko Ildoak hartu ditu beretzat Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.

Azkeneko urte hauetan, euskara ezagutzetik euskara egiaz erabiltzera aldatzeko jauzi kualitatiboa egitea da erronka nagusia. Hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) 1996-2006 bitarteko hizkuntza gaitasunaren bilakaerak erakusten duenez, elebidunen portzentajeak nabarmen egin du gora, 10 urte horietan %30,9 izatetik %37,5 izatera iritsi baita portzentaje hori. Portzentaje horiek bikoiztu egiten dira 15 urte edo hortik beherako biztanleak kontuan hartzen badira (%70) edo 50 urtetik gorakoak kontuan hartzen badira (%60tik gora). Baina euskararen erabilerari dagozkion datuak ez dira aldatu euskararen ezagutzari dagozkion datuen neurri berean; hala eta guztiz ere, bada gorako joeratxo bat, normalean euskara erabiltzen duten biztanleen kopuruari dagokionez (biztanleen %18 inguru, 2006. urtean).

Euskaraz jakiteak eta euskara erabiltzeak badituzte asimetria batzuk bai geografiari bai funtzionaltasunari dagokienez; politikak errealtatera egokitu behar diren eta progresibotasunaren printzipioetan oinarrituz erantzun behar diren asimetria horiei. 2009-2010 bitarteko aldi honetan Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskara-

ren erabilera eremu formaletan zein informaletan etengabe hedatuz joatea hartu du oinarritzko helburutzat. Horretarako, euskaraz adierazten den kulturaren erakarmena indartuko duten produktuak behar dira sortu, eta hizkuntzaren beraren kalitatea ongi zaindu, estilo eta erregistro bakoitzera ongi egokitua izan dadin. Eta adostasun sozial eta politikorik ahalik eta zabalena egin behar da hori dena, eragile sozio-politikoekin negoziazioak eginez eta haiek prozesu horretan partaide bihurtuz.

Laburtuz, bada, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politikak oinarriok ditu, errespetuaren eta begirunearen barruan beti ere: euskara bultzatzea, gizarteak euskararen alde egiten duen ahalegina aintzat hartzea, euskararen erabilerekin lotura duten euskarazko jardueren babes mantentzea, euskarari babes instituzionala segurtatzea eta euskararekiko konpromisoari eustea, eta euskara guztion ondaretzat hartzea, errespetuaren eta adostasunaren ikuspegitik begiraturatuta. Horixe da, hain zuzen ere, Gernikako Estatutuaren, Euskararen Normalizaziorako Legearen eta Euskara 21 ponentziaren espiritua, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza beretzat hartzen eta garatzen ahalegintzen dena.

1.2. **Jarduera-ildoen eskema**

Txosten hau Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bere jarduera-ildo nagusietatik –hizkuntza planifikazioa, euskararen sustapena eta hizkuntza gaietako ikerketa eta koordinazioa– abiatuta jarraitu duen lan-eskemarekiko koherentziaz egituratzen da.

Hizkuntza planifikazioa 86/1997ko Dekretuaren 2. artikuluan aipatzen diren Administrazio Publikoek eta hizkuntza eskubideez oro har arduratzen den Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak egiten du.

Euskararen sustapen-politika Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak egiten du, euskararen eremuan diharduten eragileentzako sostengu-programen bidez; horretarako hitzarmenak, diru-laguntzak, sentsibilizazio-kanpainak, Sustapen Zerbitzuak¹ kudeatzen dituen argitalpenak eginez, eta euskara eguneraturik egotea ahalbidetzen duten Programak bideratuz –Estandarizazio Zerbitzuak bultzatzen ditu hauek–.

Ikerketa eta koordinazioa ezinbesteko baldintzak dira lehentasunak zehaztu ahal izateko, euskararen aldeko politiken jarraipena egin eta orientatzeko; jarduera horiez Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza arduratzen da, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) Jarraipenerako Zerbitzuaren, Euskara Lan Munduan Sustatzeko Zerbitzuaren eta Plangintza eta Azterlanetako Zerbitzuaren bitartez.

¹ Dokumentazio eta Informazio Zerbitzua deitzen zen lehen.

JARDUERA-ILDOAK	PROGRAMAK	ZUZENDARITZAK
Hizkuntza planifikazioa Administrazioan	86/1997 Dekretuan aipatzen diren herri-administrazioen hizkuntza planifikazioa	Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza
	Hizkuntza eskubideak	
Euskararen sustapena	Sustapena	Euskara Sustatzeko Zuzendaritza
	Estandarizazioa	
Ikerketa eta koordinazioa	EBPNaren Koordinazioa eta Jarraipena	Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza
	Eremu sozioekonomikoan euskararen erabilera bultzatzeko planak sustatzea	
	Ikerketa	

Jarduera-marko honek egituratu du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskarari dagokionez dituen erronkei eman dien erantzun politikoa, euskararen errealitatea hobetzeko duen gaitasuna eta errealitate horretan duen eragina etengabe analizatuz eta ebaluatuz etorkizunean beti sakonago aztertu beharko diren garapen-formulak erabiliz.

1.3. Aurrekontua

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren 2009ko aurrekontua 305.427.000 eurokoa izan zen; kopuru horretatik %18,5 kudeatu zuen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. 2010ean antzeko portzentajeak izan ditu hizkuntza politikak: Kultura Sailaren aurrekontuaren –297 milioi euro inguru– %18,3.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren gastuen aurrekontua zerbitzuz zerbitzu. 2009-2010

	2009		2010	
	€	%	€	%
Egitura eta Laguntza	5.899.054	1,9	7.376.160	2,5
Gazteria eta Gizarte Ekintza	6.473.748	2,1	5.658.740	1,9
Kirola	14.261.334	4,7	14.958.194	5,0
Kulturaren Sustapena	31.000.350	10,1	34.420.765	11,6
Ondarea	35.954.838	11,8	30.141.546	10,2
Gizarte Hedabideak	155.189.336	50,8	150.180.000	50,6
Hizkuntza Politika	56.648.340	18,5	54.221.595	18,3
GUZTIRA	305.427.000	100	296.957.000	100

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Zuzendaritzaz Zuzendaritza izan duen gastu-aurrekontuak euskararen sustapenerako egin den ahalegina erakusten du. Euskara Sustatzeko Zuzendaritzaren aurrekontuak duen pisu berezia –Sailburuordetzaren aurrekontuaren %80tik gora hartzen baitu–, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeari (HABE) egindako transferentzia ere barruan sartzen delako da.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren gastu-aurrekontua Zuzendaritzaz Zuzendaritza 2009-2010

	2009		2010	
	€	%	€	%
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza	136.766	0,2	137.050	0,3
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza	3.794.933	6,7	3.050.276	5,6
Euskara Sustatzeko Zuzendaritza	46.911.966	82,8	45.526.437	84,0
Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza	5.804.675	10,2	5.507.832	10,2
HPS GUZTIRA	56.648.340	100	54.221.595	100

Diru-partidaz diru-partida aztertuz gero, garbi ikusten da transferentziek eta diru-laguntzek duten garrantzia (4. kapitulua), haietara baitoa hamar eurotik zortzi. Lehen ere esan den bezala, HABEri egiten zaion transferentziak transferentzia horien %62-65 inguru hartzen du, 29.792.000 euro 2009. urtean eta 30.631.424 euro 2010. urtean, zehazki esateko. Langile-gastuek (1. kapitulua) %6,9ko gorakada izan dute aztertzen ari garen aldi honetan. Aurrezteko ahalegin nagusia, berriz, inbertsio errealetan izan da (%45) eta, horren ondoren, funtzionamendu-gastuetan (%31) (2. kapitulua). Antzeko jokaera izan dute kapital-eragiketarako transferentziek eta diru-laguntzek ere (7. kapitulua); Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatzen duen aurrekontuaren %1 inguru hartzen dute partida hauek.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren gastu-aurrekontua kapituluz kapitulua 2009-2010

	2009		2010	
	€	%	€	%
1. kap. Langile-gastuak	2.597.478	4,6	2.776.854	5,1
2. kap. Funtzionamendu-gastuak	3.742.182	6,6	2.566.608	4,7
4. kap. Gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak	47.410.732	83,7	47.142.133	86,9
6. kap. Inbertsio errealak	2.221.948	3,9	1.210.000	2,2
7. kap. Kapital-eragiketarako transferentziak eta diru-laguntzak	676.000	1,2	526.000	0,9
GUZTIRA	56.648.340	100	54.221.595	100

2. Jarduera-ildoak

2.1. Hizkuntza planifikazioa Administrazioan

Testuingurua. **Hizkuntza planifikazioa Administrazioan**

Azkeneko hogeita bost urte hauetan egin den ahaleginari esker, gero eta leku zabalagoa hartu du euskarak gizartean, hedabideetan, merkataritzan, lanaren munduan eta baita Administrazioan ere, jakina. Lehia horretan, aitortu beharra dugu administrazioan alorrean diharduten langileek euskara berreskuratzeko egin duten berebiziko ahalegina, euskara ikasi eta lortu nahi dugun gizarte elebidun batera iristeko lehen-lehen mailako baliabidea baitira.

Administrazioak bere arauak ditu euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez, eta legea beteko dela bermatzea ez ezik, legea betetzea dagokio lehenik eta behin. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza normalizatorako prozesua Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Oinarrizko Legeak eta, batez ere, Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak diotena garatzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren bidez geratu zen araututa. Dekretu horren mende dauden erakundeak hauek dira: Euskadiko Administrazio Orokorra eta haren erakunde autonomoak, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, Lan Harremanen Kontseilua, foru eta udal administrazioak eta haien erakunde autonomoak, Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiak eta Euskal Herriko Unibertsitateko administrazioak eta zerbitzuetako langileak.

Alor horietan modu planifikatu batean egiten da normalizazioa, bost urteko epeetan banatuta, eta administrazio publiko guztiek dute planifikazio-aldi bakoitzeko lehenengo urtean beren hizkuntza erabileraren planak diseinatzeko eta onartzeko obligazioa.

Programak. **Hizkuntza planifikazioa, euskararen erabileraren normalizatorako eta sustapenerako tresna gisa**

Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak bi zentzutan sustatzen ditu ekimenak: 86/1997ko Dekretuaren 2. artikuluan aipatzen diren administrazio publikoen hizkuntza planifikazioa eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea. Jarduera-ildo horietako lehenengoari dagokionez, alde batetik Euskadiko Administrazio Orokorra eta bestetik gainerako administrazio publiko guztiak bereiztea komeni da.

Euskadiko Administrazio Orokorren Hizkuntza planifikazioa

Txosten honetan jasotzen den jarduera-balantzea Eusko Jaurlaritzako hizkuntza erabilera Normalizatzeko Planeko IV. plangintzaldiari (2008-2012) dagokiona da.



Esan beharra dago, lehenik eta behin, Euskal Funtzio Publikoaren Legeak (97.5 art.) eta 86/1997 Dekretuak (23. art.) agintzen dutena betez, **lanpostuen aldaketei dagozkien aginduzko txostenak prestatzen direla**. 2009an era hone-tako 48 txosten eman ziren, eta 2010ean 50.

Aginduzko txostenak prestatzeari dagozkion beste egitate batzuk, Euskadiko Administrazio Orokorrari buruzko xedapen orokorrei dagozkienak dira, 128/2007 eta 45/2011 dekretuen aginduz prestatzen diren txostenak, alegia. 2009an era honetako 134 txosten eman ziren, eta 2010ean 146.

2010ean, Eusko Jaurlaritzako 2.957 **lanpostuk** zuten izendatuta beren **derrigortasun data**; lanpostu guztien %44,3k hain zuzen. Lanpostu horien jabeak ziren langileetatik erdira ez zen iristen (%46,3) beren eginkizunak betetzeko eskatzen ziren hizkuntza eskakizunak betetzen zituztenak. Kontuan hartu behar da Eusko Jaurlaritzan lanpostu asko daudela lanpostu horren jaberik gabe (%41,2); horrek ez du esan nahi, ordea, lanpostu horiek bete gabe daudenik. 2010ean Eusko Jaurlaritzako lanpostuetan ziharduten langile guztiak hartzen badira (lanpostuaren jabeak izan ala ez izan), hizkuntza eskakizunak betetzen dituztela egiaztatuta duten langileek dituzte lanpostu horietako %77,4.

Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzako hamahiru sail eta erakunde autonomok badituzte **Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak**. Plan horien tarteko ebaluazioari dagokionez –86/1997 Dekretuak agintzen du ebaluazio hori egiteko–, egin behar zuten hamasei erakundeetatik hamarrek erabat burutua dute tarteko ebaluazioa.

Langileek egin duten ahalegina eskertzeko moduetako bat lanbideari dagokionetarako euskararen ezagutza-maila egiaztatzen duen titulua ateratzeko eskakizunak sinplifikatzea da, zalantzarik gabe. Horregatik, hain zuzen, **baliokidetutako tituluaren eta ziurtagiriaren jarraipenari** dagokionez egin zen lehenengo urratsa, 2009an, horretan parte diren sailei 2008ko urtarrilean «Euskararen Jakite-maila Egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzeari eta Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko mailekin parekatzeari buruzko Aritu Batzordearen Txostenean» egindako gomendioetara egokitze hartutako neurriei buruzko txosten bat eskatzea izan zen. Azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren bidez, titulu eta ziurtagiri gehienak hartu dira baliagarritzat eta Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko mailekin parekatu dira, gainera. Kudeaketari dagokionez, Euskarazko titulu eta ziurtagiriak kudeatzen dituzten instituzioen erregistroen osagarri izango den Euskarazko Titulu eta Ziurtagiriaren Erregistro Bateratu bat sortu eta kudeatzeko aplikazio informatiko bat prestatzeko enkargua egin da. Proiektu honetarako 50.000 euroko aurrekontu bat izan da 2010ean.

Sozietate publikoetan eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan euskararen erabilera bultzatzeko planak abian jartzeari dagokionez, erakunde horiei buruzko informazioa bildu da eta datu-base bat sortu da informazio hori jasotzeko.

Hizkuntza-normalizatzaileak prestatzeari dagokionez, zazpi ikastaro antolatu dira, HAEErekin batera, 2010eko azkeneko hiru hilabeteetan. Ikastaro horietan era askotako teknikak irakatsi dira: ebaluazioak egiteko, ezagutzak, motibazio- eta sentsibilizazio-sistemak ezagutarazi eta trukatzeko, lana errazteko, lantaldeak dinamizatzeko, liskarrak konpontzeko, jendaurrean hitz egiteko eta txostenak erredaktatzeko.

Beste alde batetik, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak **formazio berezia eskaini du Irati aplikazio informatikoa erabiltzeko** eta euskara-planei buruzko datu-bilketa eta ebaluazioa modu homogeneo batean egiteko. Formazio hori Eusko Jaurlaritzako eta gainerako Administrazio Publikoetako normalizatzaile guztiei eskaini zaie. Udal- eta foru-administrazio teknikoentzat antolatu ziren bi jardunaldietan (2009 eta 2010) 50 pertsona inguruk hartu zuten parte; Eusko Jaurlaritza barruko jardunaldietan 10-15 pertsona inguruk.

Azkenik, aldaketa batzuk sartu dira aplikazio informatiko horretan, datuen ustiaketa eta txostenen prestaketa hobetzeko.

Administrazio Publikoen Hizkuntza Planifikazioa

Hizkuntza planifikazioari dagokionez, 26/1997ko Dekretuan aipatzen diren EAEko Administrazio Publikoen hizkuntza normalizazioari dagokionez, kasu honetan, era askotako lanak egin dira. Alde batetik, **lanpostuen aldaketei dagokienez eman ziren aginduzko txostenak** 129 izan ziren 2009. urtean eta 107 txosten 2010ean.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planei (EENP) dagokienez izan den jardueraren emaitzak hauek dira: Arabako 51 udaletatik, %22k badu euskararen erabilera normalizatzeko plan bat; Bizkaiko 112 udaletatik, %67k du plan

hori; eta, Gipuzkoako 88 udaletatik, %70ek du bere plana. Beren euskararen erabilera normalizatzeko plana duten udalek biztanleria osoaren portzentaje hauek hartzen dituzte, lurralde bakoitzeko demografiaren arabera; Araba, %91; Bizkaia, %85; Gipuzkoa, %75.

86/1997 Dekretuan (19. art.) agintzen dena betez egiten den **Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planen** tarte-ko ebaluazioari dagokionez, 222 udalek, 28 mankomunitate eta partzuergok, aldundi eta batzar nagusi guztiek, Legebiltzarrak, Euskal Herriko Unibertsitateak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, Lan Harremanetako Kontseiluak, Datuen Babeserako Euskal Agentziak, Uraren Euskal Agentziak eta Haur Eskolen Partzuergoak egin dituzte ebaluazio horiek. Horiez gainera, 319 erakundek egin dituzten lanpostuen zerrenden eguneratzeak ere kontuan hartu behar dira.

Euskararen Erabilera Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) da hizkuntza politikaren ardura duten agintari publikoei beren jarduera zentratzen laguntzen dien oinarrizko tresna. Plan horren helburu nagusia euskaraz bizi nahi duenari euskaraz bizitzeko aukera ziurtatzeko behar diren hizkuntza politikako neurriak hartzea eta bultzatzea da. Tokian tokiko erakundeek bi eginkizun handi dituzte beren barne-jarduerari dagokionez: alde batetik, Administrazio Publikoetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartzea eta garatzea eta, bestetik, Euskara Zerbitzua sortzea edo indartzea. Kanpora begira izan behar duten jarduerari dagokionez, hiru eginkizun nagusi dituzte: herritarrei euskara ikasteko edo hobetzeko aukera eskaintzea, euskaraz gauzatzen diren harreman-sareak egituratzen laguntzea eta euskarazko zerbitzuak eta produktuak eta gai hauei guztiei buruzko informazio zehatza bideratzea. 2009an 157 udalek zituzten euskararen erabilera planak (EBPN); 2010ean 185 udaletara iritsi ziren halako planak zituztenak. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren diru-laguntzetarako deialdiaren emaitzei dagokienez, 2009an 1.700.000 euroko diru-hornidura izan zuen, eta 128 udalei esleitu zitzaizkien laguntza horiek; 2010ean diru-hornidura 1.800.000 eurokoa izan zen, eta 146 udal baliatu dira diru-laguntza horiez.

Azkenik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak elkarlanerako hitzarmen bat mantendu du EUDELekin (Euskal Udalen Elkartearekin); hitzarmen honetarako 28.000 euroko diru-laguntzak izan dira, bai 2009an bai 2010ean. 5.000 biztanletik beherako euskal udaletan euskararen erabilera planak definitzea, diseinatzea eta garatzea da hitzarmen honen helburua.

Hizkuntza eskubideen bermea

Hizkuntza eskubideei dagokienez, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren esperientziak garbi utzi du zerbitzu berezi bat sortu behar dela herritarrek egiten dituzten galderei eta erreklamazioei erantzuteko, euskararen erabilerak izan duen aurreramendua gorabehera, bide luzea geratzen baita oraindik ere bi hizkuntza ofizialen artean egiazko oreka izan dadin. Herritarren hizkuntza eskubideak babesteko asmoz **Elebide** sortu zen; erakunde honek, egiten diren galderei eta erreklamazioei erantzuteaz gainera, herritarrei informazioa banatzen die eta gai honetarako sentiberago bihurtzen ahalegintzen da. 2009. urtean zehar 255 intzidentzia jaso ziren guztira. Horietatik



Elebiden zure hizkuntza eskubideak babesten ditugu.

Gizarte elebidun bat lortzeko egiten dugu lan Elebiden. Zure hizkuntza eskubideak urrituak izan badira, jo guregana eta arazoa konpontzen lagunduko ditugu.



%95 kexuak ziren, galderak %4,5, eskaerak %1 eta iradokizunak %0,5. Harreman horietarako erabili zen hizkuntzari dagokionez, %95 euskaraz izan ziren, eta %5 gaztelaniaz. Izan ziren 212 kexuetatik, 209 gaztelania baizik erabiltzen ez zelako izan ziren eta beste hirurak euskara baizik erabiltzen ez zelako. 2010. urtean zehar 298 intzidentzia jaso dira; horietako gehien-gehienak gaztelania baizik erabiltzen ez delako kexuak izan dira oraingoan ere, kasu guztietatik 254 hain zuzen. Intzidentzia horietako gehienak Administrazio Publikoari dagozkio. Baina enpresa pribatuen jokoerari dagozkion kexuak aurkezteko joeratxo bat ere ari da sumatzen. Esan beharra dago, nolahi ere, oso jarrera irekia izan dela kexu hauek egin zaizkien erakunde eta enpresa gehienek aldetik: askotan oso gogo onez onartu dituzte Elebidek beraiekin harremanetan jarri denean egin dizkien proposamenak.

Aipatu beharra dago, azkenik, sentsibilizazio- eta informazio kanpaina bi egin direla, 2009ko abenduan bat eta 2010eko irailean bestea (50.000 euroko aurrekontua), urteroko txostena argitaratu eta banatzeaz gainera.

Hizkuntzaren normalizatorako jarduera-ildo nagusien laburpen-koadroa

	2009	2010
EBPN deialdia	1.700.000 €	1.800.000 €
Administrazio Publikoaren Hizkuntza Erabileraren Normalizazioa (tarteko ebaluazioa, IRATI aplikazioa, formazioa)	141.000 €	150.000 €
ELEBIDEren zabalkundeko kanpaina	20.862,23 €	116.050,45 €
Euskarazko ezagutza-mailen erregistro bateratua	--	50.000 €
EUDELen eta Sailburuordetzaren arteko elkarlanerako hitzarmena	28.000 €	28.000 €

2.2. Euskararen sustapena

Testuingurua. **Hainbat eratako eragilez osatutako mapa bat**

Euskara XXI, Itun berri baterantz, XXI. menderako hizkuntza politikaren oinarriak ponentzian adierazten den bezala, «Euskara hizkuntza bizia, adierazkortasun handikoa, jarduera formaletan ez ezik jarduera ez-formaletan ere naturaltasunez eta atseginez gero eta jende gehiagok erabiliko duen hizkuntza noranahikoa izatea da helburuetan helburu».

Erabilera da, hain zuzen ere, euskararen etorkizunerako giltzarria; horrexegatik, euskaldunen eskuetan dago euskararen etorkizuna. Eta euskaraz bizi ahal izateko Euskadi osoan zehar zabaldurik lan egiten duten eragileak eta sustatzaileak behar dira, prentsa eta literatura euskaraz irakurri ahal izan dezagun, irratia euskaraz entzun ahal izan dezagun, telebista euskaraz ikusi eta zinema euskaraz gozatu ahal izan dezagun: euskararen erabilera eta biztanleen artean euskararen transmisioa bultzatuko duten eta biztanleen euskarazko komunikazio-estandarrek hobetzen lagunduko duten sustatzaileak behar dira.

Eremu honetan dauden ekimenen panorama zabala eta askotarikoa da. Adibide bat jartzeko, Joan Mari Torrealdairen *Euskarazko argitalpenen azterketa 2009an* azterketan ematen diren datuen arabera, 2009an 277 argitaratzailek 2.342 titulu argitaratu zituzten euskaraz. Oso merkatu kontzentratua da; sei argitaletxe handi daude (bakoitzak 100 titulutik gora argitaraturik) eta 258 argitaletxe txiki esan daitezkeenak (20 titulutik bera argitaratu dituztenak). Ohargarria da argitaldari horietako erdiak baino gehiagok titulu bat baizik ez dutela argitaratu. Euskarazko prentsari dagokionez, egunkari bat bakarra dago euskaraz egiten den lurralde guztietan zabaltzen dena: *Berria*. Horrez gainera, badira lurralde eremu desberdinak dituzten egunkariak, *Hitza* eta *Hernaniko kronika* adibidez. Hiru horietatik, *Berria* da, argitaratzen dituen 16.400 aleekin, gai orokorreko egunkarizat har daitekeen egunkari bakarra. *Hitza*, formatu laburragokoa, zazpi eskualdetan zabaltzen da eta tokian tokiko gaiez jarduten du. 32.260 ale zabaltzen ditu. *Hernaniko kronika* bertako eremura mugatzen da; bi orrialdeko informazioa lantzen du eta 4.600 ale banatzen ditu. Horrez gainera, badira informazio orokorreko aldizkariak ere, *Argia* eta *Aldaketa 16*, adibidez. 2010. urtean argitaratu diren aldizkari ofizialak 20 inguru izan dira; era askotako gaiak eta irakurleak dituzte. Horiez gainera, euskarazko aldizkarien panorama osatzeko, kontuan hartu behar dira eskualde-mailako eta udal-mailako aldizkariak ere.

Hedabideek hazkunde handia izan dute azkeneko urte hauetan; horien artean badira Internet bidez soilik diharduten hedabideak ere. EITBk kanal desberdinetatik eskaintzen duen euskarazko irratia eta telebista-eskaintza publikoaz gainera, 2010ean partez edo osorik eta emititzeko baimenez euskaraz emititzen duten beste lau irratik eta zortzi telebistak jaso dituzte diru-laguntzak.

Euskararen inguruan haren garapenerako ezinbestekoak diren zenbait erakunde sortu dir , eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzat hainbat urte egin dituzte haiekin batera elkarlanean.

Programak. **Euskararen eragileen, kontsumoaren eta kalitatearen aldeko lana**

Euskara Sustatzeko Zuzendaritzaren eginkizun nagusia euskararen erabilera indartzea eta sustatzea da, euskara erabiltzearekin balio positiboak lotuz betiere. Horregatik, bada, Zuzendaritza honen jarduera-ildoan artean beren helburua euskararen erabilera gizarte eremu guztietan zabaltzea duten eta Sustapen Zerbitzuaren bitartez bideratzen diren Programak eta Estandarizazio Zerbitzuaren ardurapean dauden euskararen korpusa normalizatzeko Programak daude.

Sustapen Zerbitzua

Hitzarmen eta diru-laguntza zuzenekoak eta izendunak. Euskararen sustapenean diharduten eragile nagusiekiko elkarlana hitzarmenen eta diru-laguntza zuzeneko eta izendunen bitartez bideratzen da. Aipatzekoak dira, besteren artean, lexikografiaren eta gramatikaren alorrean, euskal prosaren Hiztegi bateratua, Gaur egungo euskararen hiztegia eta Euskal gramatika sarean garatzeko UPV-EHUaren Euskara Institutuarekin sinatutako hitzarmena. Zuzendaritza honetatik diru-laguntza jaso dutenen artean daude, orobat, Euskara Elkartearen Federazioa (TOPAGUNE); ONCE, euskarazko hainbat literatura-lan ikusteko ezgaitasuna duten pertsonen gozatu ahal izateko teknikoki egokitzeko gastuak ordaintzeko; Euskadi Fundazioak, Baskonia Fundazioak eta Bidasoa Klubak, eskolaz kanpoko jarduerak euskalduntzeko eta aisiazko denboran euskara bultzatzeko; Manuel Larramendi Kultura Elkartea; Andoingo Udala, Irigoienazpikoa Etxerako eta Mintzola Fundaziorako.

Euskara Sustatzeko Zuzendaritzaren laguntza jaso duten beste proiektu batzuen artean aipatzekoak dira Euskara Kultur Elkargoa –elkarlanean jardun du euskararen eremuan sentsibilizazioa bultzatzeko–; KONTALARIA proiektua (euskarazko literaturaren eta kulturaren zabalkundea) eta Euskal Herriko Unibertsitatea –2010ean Koldo Mitxelena-
ren lan guztiak argitaratzeko lankidetzaproiektu bat burutu zen erakunde honekin–.

Euskararen erabilera Euskal Herri osoan zabaltzeko eta sustatzeko lankidetzaproiektu alorrik garrantzizkoenetako bat **euskarara erabiltzen den herrialdeetako erakundeekin lan egitea** da. Eremu honetako ekimenen artean bereziki aipatzekoak dira 2009an eta 2010ean Euskararen Erakunde Publikoarekin sinatutako hitzarmenak eta 2010ean EAEan euskaraz argitaratzen diren argitalpenak Iparraldeko irakurketa-sare publikoan zabaltzeko lankidetzaproiektu-hitzarmena. Euskal Kultur Erakundea/Institut Culturel Basque (EKE) erakundeak diru-laguntza izendun bat jaso du kultura-jardueraren sustapenean diharduen erakunde horren jardura estrategikoak ordaintzeko. Horrekin batera 2010an Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren, Euskararen Erakunde Publikoa/Office Public de la Langue Basque erakundearen eta EITBren artean Iparraldean EITBren emanaldietan euskararen erabilera sustatzeko publizitate-kanpaina bat egiteko hitzarmena ere hartu behar da kontuan. Euskararen Erakunde Publikoarekin sinatutako lankidetzaproiektuei dago kienez, 2010eko Hizkuntza Politikako proiektuetarako deialdietarako aurrekontu orokorra 1.600.000 eurokoa izan zen; horietatik 1.130.000 euro Euskararen Erakunde Publikoak jarri zituen eta Eusko Jaurlaritzak 470.000 euro. Diru-



funts hori era honetan banatu da: 1.200.000 euro zazpi eragile nagusien artean, hitzarmenak sinatuz, eta 400.000 euro euskararen alorreko 47 proiektu puntaletarako.

Beste alde batetik, 2010ean diru-partida handi bat erabili da **euskal kulturaren kontsumoa indartzeko**, euskarazko irakurketa publikoa eta euskarazko ikus-entzunezko produktuen kontsumoa bultzatzeko, zehazki. Era horretan, Kultura Sailak alor horietan egiten duen lana osatzea izan da helburua. Lehenengo egitatea: Galtzagorri elkartearekin batera, euskaraz irakurtzea bultzatzeko lankidetzat bultzatu da. Zinemaz euskaraz gozatu ahal izateko aukerei dagokienez, aipatzekoak dira euskarazko azpitoluak egiteko bideratu diren elkarlanak. 2009an eta 2010ean, Donostiako Zinemaldiarekin bideratu ziren, zinemaldi horren 57. eta 58. edizioetarako; ekimen horren bidez 17 film azpitolatu ziren euskaraz, bai sail ofizialean, bai *Zabaltegi bitxiak* bai *Atzera begira* sailetan; eta baita Donostia Kulturarekin ere, Fantasiarazko eta Beldurrezko Zinemaldian eman ziren bi film azpitolatzeko. Ildo berean kontratu bat sinatu zen Naonedeko Association Rencontres Cinéma Espagnol elkartearekin, bost film luze eta hiru labur frantsesera itzultzeko, azpitolatzeko edota aretoan aurkezteko, eta laguntza eman zen Euskarazko zinemaren ziklorako, Naonedeko Festival du Cinéma Espagnol 20. zinemaldian *Euskal Leihoa* sailean. 2010ean euskarazko kulturaren kontsumoa bultzatzeko bideratutako aurrekontua 1.137.275 euroraino iritsi da.

Esponsor-jarduera. Proiektuen eta ekitaldien esponsor-jarduerazko proiektuak dira aipamena merezi duten beste lankidetzat-proiektu batzuk: 2009-2010 urteetarako Euskal Herriko Txirrindulari Itzuliarekin izenpetutako kontratua; BERRIA egunkariarekin haurrentzako film laburreko DVD bilduma, 2009an egina; Euskal Editorea S.L. enpresak 2010ean hasitako www.badok.info musikazko web orria.

Zuzendaritza honetatik kudeatzen diren **diru-laguntzetarako deiak** era hauetako programetara zabaltzen dira:

- **Euskalgintza** deialdia, euskara gizarte-bizitzan sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko bideratua.
- **Hedabideak** deialdia, euskarazko hedabideak indartzera, garatzera eta normalizatzera bideratua.
- **IKT** deialdia. Informazioaren eta komunikazioaren teknologietan euskararen erabilera bultzatzera, garatzera edota normalizatzera bideratua (2010ean Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzaren eskuetara aldatu zen).
- **HEHOBA** deialdia, helburua euskarazko hedabideetan hobekuntza-analisiak egitea duten proiektuetara bideratua.

Azpirarratzekoa da hedabideetan kultura-jardueraren sustapenari dagokionez egin den ahalegina (Euskalgintza eta Hedabideak); ekonomiaren krisiak eragindako aurrekontuen doikuntza orokorretik salbu uztea lortu da. 2009an eta 2010ean Euskalgintzarako izendatutako aurrekontua 1.339.000 eurokoa izanez mantendu da, zehazki, eta Hedabideak ekimenerakoa 5.725.000 euroan finkatu da.

Argitalpenak. Argitalpenei dagokienez *Bidegileak* (Euskararen aitzindariak) nabarmendu behar da; bilduma honen helburua euskararen alde jardun duten pertsonak omentzea da. 2009. urtean 55., 56., 57. eta 58. partidak prestatu ziren (16 *bidegileren* biografiak); argitalpen horiek guztiak 2010ean aurkeztu ziren. 59., 60. eta 62 partidak (16 *bidegileren* biografiak) 2010ean prestatu ziren.

Nabarmentzea merezi duen beste argitalpen bat *Euskararen Berripapera* da; euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzen den hileroko argitalpena da eta bi bertsio ditu: paperezkoa eta digitala. *Hizkunea*, soziolinguistikako hilabetekari digitala 2009an argitaratu zen, baina 2010ean itxi egin zen. *Euskara Mintzagai* bildumari dagokionez, 2009an bi ale prestatu ziren eta 2010ean argitaratu ziren: *Herri literatura* eta *Euskarak erakutsi koloreak ikusten*. 2010ean karpeta berezi bat argitaratu zen. Karpeta horretan osagarritzko hiru dokumentu sartu ziren: Louis Lucien Bonaparte printzeak 1863an sortutako mapa, *Herri literatura* abesti-bilduma, bere diskoarekin batera, eta Jack London idazlearen *Itzala eta distira* ipuinaren euskarazko itzulpena.

Sentsibilizazio-kanpainak. Esan beharra dago, azkenik, euskararen erabilera bultzatu nahi bada, beharrezkoa dela euskara ikasi nahi duten guztiak euskara ikasi eta erabil dezaten animatzen jarraitzea. Horretarako zenbait sentsibilizazio-kanpaina egin ziren, Euskararen Nazioarteko Eguna (abenduaren 3a) ospatzeko, Expolangues Paris, London Language Show, Expolingua Praga eta Expolingua Berlin Hizkuntza Erakusketetan, HABErekin lankidetzan, eta publikitatezko zenbait kanpaina, *Munduoro euskaraz / Abierto al mundo*, adibidez.

Estandarizazio Zerbitzua

Euskararen estandarizaziorako proiektuetarako partida handiak izan ziren aurrekontuetan; 2009an 1.871.063 euroko partida izan zen, zehazki, eta 2010ean 1.160.000 eurokoa; horri esker euskara eremu guztietan eguneratuta

edukitzeko lana jarraitu ahal izan da; horretara bideratuak dira, esate baterako, Euskalterm terminologia-banku publikoa eta Izendegi geografikoa. Horrekin batera euskara informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietan erabiltzeko aukera errazten duten tresna eta programa berriak landu dira.

Hitzarmenak. Aipatzekoak dira euskararen alorrean berebiziko garrantzia duten zenbait erakunderekin sinatu diren urteroko hitzarmenak; hona erakunde horietako batzuk: EIZIE, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte, Literatura Unibertsala proiekturako; Labayru Ikastegia, euskararen zabalkunderako eta bizkaieraren normalizaziorako; eta Bertsozale Elkarte. Euskaltzaindiari dagokionez, aurreko hitzarmen-markoa 2009an bukatu zen, eta horrenbestez beste lau urterako hitzarmen-marko bat sinatu da 2010ean.

Toponimia. Aldizkari ofizialetan argitaratzen diren herriguneeen eta hiriguneeen izenen ofizializatzea bultzatu da. 2009an, adibidez, 130 izen ofizializatu ziren guztira, 15 kontzeju eta 11 auzo Araban, 56 auzo Bizkaian eta 57 auzo Gipuzkoan. 2010ean 182 izen izan ziren guztira; Bizkaian izan ziren gehienak (137 auzoren izenak), ondoren 39 izen Gipuzkoan eta 6 kontzeju Araban. Alor honetatik irten gabe, **Euskal Autonomia Erkidegoko Izendegi geografikoa** da proiekturik garrantzitsuena; Izendegi hori Espainiako Institutu Geografikoaren Espainiako Izendegi geografikoaren barruan sartuko da. 2009. urtearen bukaera aldera hasi zen lana, eta lana eginez joan den denbora guztian Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritzak daraman BTB (Base Topografiko Bateratua) proiektuarekin koordinatuz joan da. Proiektu honen aurrekontua 200.000 eurokoa izan zen 2009. urtean, eta 2010. urtean 52.026 euro izendatu ziren Izendegi geografikorako. Horrez gainera, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak parte hartu du Espainiako Institutu Geografikoko Izen Geografikoen Batzordeak antolatutako bileretan –erakunde horretako kidea baita–, eta Espainiako Institutu Geografikoko Izen Geografikoen Batzordeak antolatutako toponimiari eta kartografiari buruzko ekimenetan ere parte hartu du, toponimiaren normalizazioari buruzko ikastaro batean (Madril) bereziki, eta baita Madrilen eta Valentzian izandako Jardunaldietan ere. Aipatu beharra dago, orobat, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamenduko ordezkariekin egindako koordinazio-bilerak.

Terminologia. 2009an kontratu bat sinatu zen UZEIrekin, EUSKALTERM terminologia-banku publikoa eguneratzeko eta mantentzeko. Kontratu horrek 2012. urtearen bukaera arte iraungo du, eta 2009an 99.998,96 euro eta 2010ean 287.473,52 euro izendatu dira proiektu horretarako. Horrez gainera, Terminologia Batzordeak onartutako hogei hiztegi terminologiko argitaratu dira.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia. Alor honetan aipatzekoak dira 2010ean Udako Euskal Unibertsitatearekin (UEU) doktore-tesiak eskuratzeko sinatutako emaitza-kontratuak, eta ELEKA enpresarekin tresna teknologikoak erosteko sinatutako kontratuak. Horrez gainera, Microsoft enpresarekin lankidetzeta-lanak egin dira, Windows 7, Office 10 eta Windows Live softwareetarako LIP (interface-paketeak) berrikusteko; eta orobat software libreko softwarearen interfaceak berrikusteko, Linux (2009) eta OpenOffice (2010), zehazki.

Estandarizazio Zerbitzua EJIrekin kudeaketa-mandatuak egiteaz arduratu da, software librearen eguneratzeak egiteko (2009) eta Eusko Jaurlaritzako langileen artean euskarazko softwarearen erabilera bultzatzeko (2010). EJI Eren

zerbitzu informatikoetan gaztelania-euskara arteko itzulpen automatikoko tresna egokitu da, eta aukera informatiko gehiago eta itzulpen-memoriak ere sartu dira.

Irakurleen programa. 2009an eta 2010ean Zuzendaritza honetatik kudeatu ziren euskararen irakurle programa guztiak, bai Espainian bai atzerrian direnak. Programa honen helburua euskararen hedadura eremutik kanpo euskararen eta euskal kulturaren sustapena egitea da. Espainiako estatuaren barruan, 38.000 euro inguruko lankidetzak-hitzarmenak sinatu ziren 2009an eta 2010ean, ondoko unibertsitate hauekin: Bartzelonako Unibertsitatea, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa, Valenziako Unibertsitatea, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea eta UNED. Atzerriko unibertsitateei dagokienez, badira unibertsitateko irakurle-Programak Polonian, Italian, Txekian, Errusian, Alemanian, Finlandian, Estatu Batuetan, Mexikon, Argentinan, Txilen eta Uruguain. Alor honi dagokion aurrekontua 130.000 eurokoa izan zen 2009an eta 162.000 eurokoa 2010ean.

Euskara Sustatzeko Zuzendaritza partaidea da NPLD **Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Sarean**; 2010ean Donostian bildu zen Sare horretako zuzendaritza-batzordea. Horrez gainera, NPLDak antolatutako mintegiak gertatu ziren Euskal Autonomia Erkidegoan. Eta Dublin eta Brusela hirietan egindako mintegietan ere parte hartu da.

Euskararen sustamenerako jarduera-ildo nagusien laburpen-koadroa

	2009		2010	
	Laguntza jaso duten proiektuak	Laguntza €	Laguntza jaso duten proiektuak	Laguntza €
Euskararen sustapenean diharduten eragileekiko hitzarmenak eta diru-laguntza zuzenekoak eta izendunak	9	2.620.955	9	2.264.449
Iparraldeko erakundeekiko hitzarmena	76	540.000	59	530.020
Euskaingintzarako laguntzak	210	1.339.000	190	1.339.000
Hedabideetarako laguntzak	122	5.725.000	118	5.725.000
Teknologia berrietan euskararen erabilera sustatzea	150	1.150.000	201	1.395.000*
HEHOBA laguntzak	10	165.000	6	90.000
Euskararen eremuan diharduten erakundeekiko hitzarmenak	4	2.265.955	4	2.084.449
Espainiako eta atzerriko unibertsitateekiko euskara irakasteko hitzarmenak	23	162.202	24	194.965

* 2010ean Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza kudeatu ditu.

2.3. Ikerketa eta koordinazioa

Testuingurua. **Hizkuntza politikaren ekintza-eremua zabaltzea**

Hizkuntza politika baten garapena ikerketan eta koordinazioan oinarritzen da. Lehenik eta behin, oso ongi eta sakon ezagutu behar dira politika horiek berbideratzeko eta ekimen-eremua gizarte-sareak eta gisa horretakoak bezalako eremu berrietaratzeko aukera ematen duten gaiak. Soziolinguistikazko ikerketetan erabiltzen diren metodologiak eta egiten ari diren ikerketak ere ongi ezagutzea komeni da, gomendioak eta jardunbideak diseinatzeko inspirazio-iturriak izan daitezten. Zuzendaritza honen interes-eremua zabaltzen duten alorrak dira, hain zuzen ere, eta teknologia berriak eta gizarte eta laneko eremua dituzte ardatz nagusiak.

Interneten erabilera-mailari dagokionez, Eustatek emandako datuek erakusten dute Euskal Autonomia Erkidegoko 15 urtetik gorako biztanleen erdiak baino gehiagok (%52,6) erabili zuela Internet 2010. urteko lehenengo hiru hilabeteetan. Alor horretan erabiltzen diren hizkuntzei dagokionez, gaztelania da nagusi; alor horretan gaztelania erabiltzen dutenen kopuruak eten gabe egin du gora azkeneko hamar urte hauetan (Internet erabiltzen duten guztien %99,4k gaztelania erabiltzen du Interneten). Euskara erabiltzen duten erabiltzaileen kopuruak gora egin du, baina ez horrenbeste. Euskararen erabilera finkatu eta egonkortu egin da azkeneko urte hauetan, eta euskaraz nabigatzen duten erabiltzaileen portzentajea %20 inguruan dago, ingelesez nabigatzen duten erabiltzaileen portzentajearen neurri bertsuan. Euskarak enpresetan duen erabilerrari dagokionez, aipatu beharra dago 1997tik 2009ra bitartean, 285 enpresak jaso dituztela euskararen erabilera zabaltzeko planak garatzeko diru-laguntzak. Horien artean gutxi batzuk baizik ez daude normalizazio-planaren diseinuko alditik aurrera igaro ez direnak; gehien-gehienak euskararen erabilera normalizatzeko planak ezartzeraino iritsi dira.

Beste alde batetik, ordea, euskararen garapenaren eta sustapenaren alde diharduten eragileak zenbat eratakoak diren kontuan harturik, guztiz ezinezkoa da euskararen erabilera sustatzea, horiek guztiak koordinatzeko bide egokiak ezarri ezean. Hala, Euskararen Aholku Batzordea edo Herri Agintaritzak Koordinatzeko Batzordea (HAKOBA) oinarri-oinarrizko erakundeak dira lehentasunak finkatzeko, politika bateratuak egiteko eta euskararako izendatzen diren baliabideak optimizatzeko. Baina, normala denez, elkarlan hori ez da Autonomia Erkidego honen ekimen-eremura mugatzen; euskararen erabilera eremu guztietan eta beste eremu geografiko batzuetan ere diharduten eragileekiko harremanak eta laguntza-eskaintzak barnean hartzen ditu, lankidetzeta-sareak eta lankidetzeta-proiektuak osatzeko.

Programak. **Koordinazioa, ikerketa, teknologia eta enpresa, ekimen-ardatzak**

Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzaren jarduera-ildoak EBPNak koordinatzera eta haren jarraipena egitera, eremu sozioekonomikoan euskararen erabilera bultzatzeko planak sustatzera eta ikerketara bideratzen dira. Jarduera-ildo horiek garatzeko Programak kudeatzeaz arduratzen diren hiru zerbitzutan banaturik antolatzen da lan hori.

EBPNaren Jarraipenerako Zerbitzua

Euskararen erabileraren normalizaziorako politikak garatzeko ardatz nagusiak koordinazioa eta elkarlana dira, erakunde, elkarte eta organismo askok hartzen baitu parte politika horietan.

Lehenik eta behin, euskararen erabilera normalizatzen laguntzeko erlazio-erakundea **Euskararen Aholku Batzordea** da (EAB), euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Legeak agintzen duen bezala. Erakunde horren eginkizun nagusia euskararen erabileraren normalizazioaren alde diharduten erakunde publikoen eta pribatuen ahaleginak eta ekintzak aztertzea, bideratzea eta koordinatzea da.

EABaren eginkizun nagusiak hauek dira:

- Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza normalizazioari buruzko gaiak aztertzea eta ikertzea.
- Eusko Jaurlaritzari eta dagokien bestelako erakundeei euskararen erabilerari buruzko xedapenak egoki inplementatzeko behar diren neurriak proposatzea.
- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren jarraipena egiteko lanak egitea.
- Euskara gizarte eremu guztietan sartzeko jardunbide berriak aztertzea eta proposatzea

2010eko ekainean Aholku Batzordearen osoko biltzarra burutu zen Lehendakaritzaren egoitzan, eta urte horren bukaera aldera Aholku Batzordearen osaera aldatu zen, 2010eko abenduaren 20ko Aginduan jasota geratu zen bezala. Era berean, Euskararen Aholku Batzordearen sail desberdinak abian jarri dira:

- Euskara 21 Batzordea: EBPNa berrikustez eta Ekintza Plan berriaz arduratzen da.
- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Batzordea: IKTetarako gomendioez eta lehenasunez eta haietzako diru-laguntzetarako deialdiak egiteaz eta haien jarraipena egiteaz arduratzen da.
- Toponimia Batzordea.
- Terminologia Batzordea.

Beste alde batetik, **Herri Agintaritzak Koordinatzeko Batzordea (HAKOBA)** da hizkuntza politikan eskumena duten erakunde nagusien arteko koordinazioa bermatzeaz eta haien arteko elkarlana bultzatzeaz arduratzen den erakundea. Batzorde horretako partaideak dira Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hezkuntza Sailak, HAEEa, hiru Foru Aldundietako euskara sailletako Zuzendariak, hiru euskal lurraldeetako hiriburuetakoko euskara sailletako zinegotziak eta EUDELeke ordezkari bat. Baliabide ekonomikoak (euskarako aurrekontua, diru-laguntzetarako deialdiak), giza baliabideak (teknikarien formazioa) aztertu eta proposatzeaz arduratzen da, eta orobat Administrazio Publikoetako euskararen erabilera sustatzeko planez ere. Laburbilduz, bada, koordinazioaren eta elkarlanaren bidez, euskararen erabileraren normaliza-

ziorako izendatutako baliabideetatik ahalik eta probetxurik handiena ateratzea da helburua, horretarako bikoiztasunak saihestuz eta, ahal den neurrian, indarrak eta baliabideak barreiatzea eta galtzea eragotziz.

2009-2010 bitartean bilera bat izan da; bilera horretan Batzordearen osaera aldatu zen, eta Udalerri euskaldunen mankomunitatea (UEMA) elkartearen ordezkari bat sartzeko bidea egin zen; euskararen normalizatorako diru-laguntzetarako deialdiei eta euskararako aurrekontuei buruzko azterketak egin eta aztertu ziren; legegintzaldi honetarako elkarlanerako proposamenak aztertu ziren eta euskarazko hedabideen sustapenari buruzko gogoeta bat egin zen.

Diru-laguntzetarako programa nagusietako baten helburua **informazioaren eta komunikazioaren teknologietan euskararen erabilera** bultzatzea, garatzea edota normalizatzea da. Aipatzekoa da denbora-bitarte horretan 2009ko diru-laguntzetarako deialdiaren ebaluazio bat egin dela. Helburu honetarako diru-hornidura nahiko antzekoa izan da bi urteetan; baina diru-laguntza eman zaien proiektuen kopurua asko handitu da 2010ean

IKTetarako diru-laguntzen laburpen-koadroa

Laguntza mota	2009		2010	
	Laguntza jaso duten proiektuak	Laguntza €	Laguntza jaso duten proiektuak	Laguntza €
Atari birtualak, web orriak, komunitate birtualak	88	915.032,44	88	929.946,73
Hizkuntza teknologietan euskara sartzea	1	2.814,94	4	55.999,98
Softwarea itzultzea edota sortzea	31	454.731,73	71	419.999,64
Aisiako eta ongizateko edukiak	27	239.732,52	36	199.999,82
Lan-mundurako edukiak	3	13.687,62	3	19.999,99
GUZTIRA	150	1.625.999,25	202	1.625.946,16

Zuzendaritza honi dagokio **zinpeko itzultzaile eta interpreteen meritu bidezko habilitazioa** egitea. Hala, 2010eko urrian, lege-, administrazio- edo ekonomia-eremuetan itzulpengintzan edo interprete-lanetan gutxienez hamabi urtez jardun ondoren meritu bidezko habilitazioa eskaturik, euskaratik gaztelaniarako eta gaztelaniatik euskararako itzultzaile- eta interprete-habilitazioa lortu dutenen izendapenak egin dira. Bide horretatik 92 pertsonari eman zaie zinpeko itzultzaile izateko habilitazioa, eta 30 pertsonari itzultzaile-interprete izateko habilitazioa.

Programa honi dagokion eremuan euskararekiko sentsibilizazio- eta sustapen-kanpainak egin dira. 2009. urteari dagokionez, 251 enpresa bisitatu dira eta horietako 180n diagnosiak egin dira. Parte hartu dutenen iritziak jasotzeko eta hurrengo deialdia hobetzeko, 2010. urtearen bukaera aldera, programaren asebetetzeari buruzko inkestak bidali zitzaizkien programan parte hartzen duten enpresei eta aholkularitzei.

LanHitz programan LanHitz eta Bikain diru-laguntzak eta Euskara Kalitatearen Ziurtagiria sartzen dira:

- **LanHitz deialdia:** Eremu sozioekonomiko pribatuan euskararen erabilera bultzatzeko urteroko deialdia. 2009-2010 aldian programan 240.000 euro aurreztu dira, baina sostengaturiko enpresen kopurua ez da ia gutxitu, 175etik 162ra pasa baita. Nolanahi ere, ez da ahaztu behar programa honen helmena, zeren 45.000 langile inguruk dituzte beren lan-jarduera euskaraz bideratzeko baliabideak.
- **Bikain - Euskararen Kalitate Ziurtagiria:** 2009ko maiatzean martxoaren 3ko 53/2009 Dekretua, martxoaren 3koa, Bikain - Hizkuntza Konpromisoaren Zigilua eta Euskararen Kalitate Ziurtagiria arautzen dituena argitaratu zen. Bikain Ziurtagiriari dagokionez, deialdi bat egiten da urtero bere jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan duen erakunde publiko eta pribatu orok kanpoko ebaluazio-zerbitzua eska dezan. Ziurtagiri honek hiru maila ditu: oinarritzkoa, ertaina eta goi-maila. 2009an 25 enpresak lortu zuten ziurtagiria; 2010ean 19 enpresak. Aipatzekoa da bi urte hauetan 19 enpresak lortu dutela goi-mailako ziurtagiria; 14 enpresak lortu dutela maila ertaineko ziurtagiria eta 11 enpresak lortu dutela oinarritzko maila. Ziurtagiriak banatzeko ekitaldia Kursaalak gertatu zen, 2010eko azaroan, telebistan eta irratan programa hau ezagutarazteko egin zen publizitate-kanpaina batekin batera. Prozesu hori guztia bideratzeko, Euskal erakundearekin batera elkarlanean jardun zen, 2010ean sinatu zen kontratu baten bidez. Dekretuarekin batera bi organo osatu ziren: Zuzendaritza Batzordea eta Batzorde Eragilea; 2010aren bukaera aldera bildu ziren, deialdia nola zihoan aztertzeke eta etorkizunerako proposamenak iradokitzeke. Bada Idazkaritza Tekniko bat ere (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako eta Euskaliteko teknikariek osatua). Horrekin batera, Ebaluatzaile-kluba sortzen eta kudeatzen da, kanpoko ebaluazioa egiteko. Dekretuan aurreikusten den Hizkuntza Konpromisoaren Zigilua aurki garatuko da.

Lan-eremuaz gainera, ordea, **kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideen garapenaz** ere arduratzen da Zuzendaritza hau. Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak, Merkataritza eta Turismo Sailak eta Kultura Sailak 123/2008 Dekretua onartu zuten, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatzeko. Dekretu honetan Dekretua betetzen ez duten establezimenduei eta erakundeei zigorrak ezar dakizkiekeela adierazten da. Eusko Jaurlaritzako aipatutako sail horiek laguntza berezi bat sortu zuten elkarrekin horretarako; 556.952,69 euro eman ziren dekretu hori betetzeko bideak jartzeko. 2009ko deialdian 25 erakunde aurreztu ziren; eskabide guztiak onartu ziren eta denei eman zitzaien diru-laguntza. 2010ean urtebeteko luzamendua eman zen dekretua betearazteko, Hizkuntza Politika zigorrak ezartzean ez baina adostasunean oinarritu behar zela pentsaturik.

Lan-eremuan egindako hirugarren jarduera lanbide-heziketako ikasleentzat lanpostuan bertan euskarazko formazioa eskaintzeari dagokiona da. 2009ko apirilean proiektu berezi bat abiarazi zen Oarsoaldeko lau udalerrien (Erren-

teria, Lezo, Oiartzun, Pasaia), Don Bosco Goi Mailako Lanbide Heziketako Institutuaren eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren arteko lankidetzari esker. Ikasketak euskaraz egin dituzten Lanbide Heziketako ikasleei enpresako praktikak ere euskaraz egin ahal izateko aukera emango dien esperientzia pilotu bat da; zazpi enpresak hartzen dute parte. Aurrekontuari dagokionez, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 14.701,84 euro jarri zituen 2009an plangintza-, diagnosi-, diseinu-, inplementazio-lanak egiteko eta zazpi enpresa horien ebaluazioa egiteko; Oarsoaldeak, bere aldetik, 3.298,16 euro jarri zituen. Esperientzia 2010eko lehenengo sei hilabeteetan egin da; emaitza onak izan dira, eta horrexegatik, harremanak izan dira berriro Oarsoaldeko ordezkarien eta Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza Sailaren ordezkarekin, proiektuarekin aurrera jarraitzeko, hain zuzen ere Lanbide Heziketako praktikei dagokienez, Hezkuntza Sailari baitagokio eskumena.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak parte hartu zuen, orobat, **Makina Erremintaren Institutuak (MEI) urtero antolatzen duen 30+10 Mintegia antolatzen**. Mintegi honetan enpresen hizkuntza kudeaketaren gaia aztertu ohi da, eta makina erreminta hornitzaileei, erabiltzaileei eta fabrikatzaileei zuzendua da. Sektore horretan diharduten enpresei euskaraz garatutako zerbitzuak, makinak eta tresnak ezagutaraztea da mintegi honen helburu nagusia, hala zerbitzu eta tresneria horien eskaera haz dadin.

2004-2005 urteetan, Buruntzaldeko udalek lan-munduan euskararen erabilera sustatzeko proiektu bat abiarazi zuten. Gaur egun proiektu horren jarraipena egiteko hainbat bilera egiten dira, eta bilera horietan Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzako teknikari batek ere hartzen du parte.

Aipatzekoa da, azkenik, «Gidabaimena euskaraz» proiektua abian jartzen hasia dela. 2010ean materialak prestatu dira, publizitate-kanpaina diseinatzen hasi da, eta autoeskoletan, Estatuko Trafiko Zuzendaritza Nagusiarekin eta Eusko Jaurilaritzako Trafiko Zuzendaritzarekin harremanak hartu dira.

Plangintza eta Azterlanetako Zerbitzua

Era askotako **ikerketa gaiak** izan dira; horien artean nabarmentzekoak dira hedabideak, gizarte-sareak ezagutzeo egin diren azterketak, euskara 2.0 proiektuari, soziolinguistikari, ahozkotasunari buruzko eta gisako azterketak.

Hedabideei dagokienez, 2009an sintesizko oinarrizko dokumentua landu zen: *Euskarazko hedabideak eta euskararen presentzia hedabideetan*. Media direlakoei dagokienez, prentsan eta Interneten 1998-2010 bitarteko urteetan izandako solasgaiak zein izan diren eta berorien bilakaera eta alderaketa zehazteko azterketa bat bultzatu da 2010ean.

Gizarte-sareak 2009an aztertu ziren, gizarte-sare horiek eta 2.0 logikak euskararen erabileraren sustapenerako zer eragin duten azaltzeko. 2010ean «Gizarte-sareen bidez hizkuntza jokaeretan eragina izateko esku-hartzeko praktikei buruzko ikerketa» egin da.



Soziolinguistikaren eremuan, 2009an nazioartean soziolinguistikaz argitaratu diren gidaliburuen bilketa bat egin zen, eta soziolinguistikako gidaliburu bat prestatu zen.

Beste aztergai bat ahozko erabilera aztertzeko eta behatzeko metodologiak ezagutu eta bateratzeko eta Mintzapraktika proiektuaren eraginkortasuna kuantifikatzeko azterketa bat egitea da ikerketa horren helburua.

Horrez gainera, euskarari dagozkionetatik urrun bizi diren herritarrekin, etorri berriekin batez ere, harremanetan eraginkortasunez jartzeko egokiak izango diren praktikak prestatzeko oinarrizko klabeak zein diren aztertu eta probatzeko proiektu bat jarri da abian, hala euskararen errealitatera hurbiltzen laguntzeko (AUZOKO).

Programa hau deskribatzerakoan adierazi bezala, euskara sustatzeko diru-laguntzetarako deialdiek duten eragina neurtzeko ikerketa bat abiarazi da: IKT deialdiaren azterketa.

Euskara ikasi dutenek lan-munduan dituzten hizkuntza ohituren aldaketari buruzko ikerketaren lehenengo partea ere burutu da (ALDAHITZ 1).

Eta, azkenik, ikerketa bat egin da euskararen erabilera sustatzeko egiten diren komunikazio-kanpainen eraginkortasuna handitzeko oinarrizko prozedurak adostu eta proposatzeko eta prozedura horiei buruzko gidaliburu bat prestatzeko.

Informazioaren kudeaketarako tresnei dagokienez, azpiegitura publiko eta pribatuei buruzko datu-baseak eguneratu eta elikatu dira, eta finantza-erakundeetan izaten den euskararen erabilera neurtzeko aplikazio bat diseinatu eta aplikazio hori instalatzeko laguntza eta formazioa eskaini dira. 2010ean euskararen ahozko erabilera behatzeko laginketa-eredua zabaldu da eta horretarako aplikazio informatikoa garatu da.

Argitalpenei dagokienez, 2009an *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak*; *Actitudes y prejuicios de los castellanohablantes hacia el euskera* (itzuli eta argitaratu); eta *IV. Mapa soziolinguistikoa* argitaratu ziren. 2010ean *Manual de sociolingüística / Soziolinguistika eskuliburua* argitaratu da.

2010ean egin diren **formazio-ekimenen** artean aipatzekoa da, alde batetik, Tolosako gazteen artean euskararen erabilerari buruz dauden praktikei eta jokaerei buruz egindako ikerketa aplikatua, Mintzolarekin batera zenbait ikastetxetan egin; eta aipatzekoa da, orobat, Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroetan egindako «Euskara 2.0» udako ikastaroa.

Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzaren diru-laguntzetarako deialdi nagusien laburpen-koadroa

	2009		2010	
	Laguntza jaso duten proiektuak	Laguntza €	Laguntza jaso duten proiektuak	Laguntza €
LanHitz programa	175	2.648.148	162	2.378.828
IKT deialdia	150	1.625.999	202	1.625.946



3. Etorkizuneko erronkak

Euskara XXI dokumentuak marrazten duen euskararen aldeko lan-markoak ezartzen ditu etorkizuneko hizkuntza politika orientatu behar duten oinarriak; oinarri horien artean, nabarmentzekoa da herritarren aldetik ahalik eta adostasunik eta atxikimendurik handiena lortzean oinarritzen den politika bat egin beharra, horixe baita prozesu osoaren oinarria, legezko markoak, politika publikoek eta planifikazioak lagundu beharrekoa. Ardatz horietan oinarrituta, administrazio publikoak ereduzkoa izan behar du herritarren hizkuntza eskubideak zaintzen.

Hain zuzen ere, Euskararen Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN), hizkuntza politikaren ardura duten erakunde publikoei beren jarduera zentratzen laguntzen dien tresna horren ebaluazioa izango da euskararen ezaguera eta erabilera bultzatzeko Euskararen Aholku Batzordearekin elkarlanean diseinatuko den plan berri bat lantzeko erabiliko den oinarria. Ekintza plan hori progresibotasunaren printzipiotik abiatuta diseinatu beharko litzateke, atxikimendua, egingarritasuna eta komeni den erritmo egoki bat bateratuz. Horixe da gaur egun hizkuntza planifikazioaren erronka nagusia.

Gaur egun dauden harremanetarako eta koordinaketarako organoak (Euskararen Aholku Batzordea eta HAKOBA), egiten ari diren lanari laguntzea da hizkuntza politika orok behar duen adostasuna bermatzeko oinarrietako bat, euskararen errealitatean eragina duten eragile guztien arteko osagarritasunaren printzipioan oinarriturik.

Lehen ere esan den bezala, euskararen erabileran dago euskararen etorkizunaren giltzarria, hark ematen baitio



balioa hizkuntzari, eta herritarrek dira erabilera horren protagonistak. Erabilera, erabilerak izan ditzakeen alderdi guztietan hartuta: kultura, hedabideak, aisia eta abar. Literaturaz, zinemaz, hedabideez, Interneteko edukiez eta kanalez eta teknologia berriez euskaraz gozatu ahal izatea ahalbidetzen duten ekimenei lagunduz eta ekimen berriak bultzatuz jarraitzea esan nahi du horrek. Ildo horretatik, bada, euskararen inguruan lanean diharduten eragileen lana babesten eta bermatzen jarraituko dute euskararen sustapenerako politikek.

Horrez gainera, herritarrei zerbitzua eskaintzeko asmo ezagutua duten beste proiektu batzuk ere izango dira: wikipedian eduki entziklopedikoak sartzeak, esate baterako, euskarazko kalitatezko edukiak doan eskuratzeko aukera emango dio gizarte osoari. Gaur egun Eusko Jaurlaritzaren jabegokoak diren Lur entziklopediaren edukiak sartuz hasiko da. Ekimenaren, lan sozialaren eta erakunde publikoaren bermearen batura horrek, wikipedia ahaltu bat osatzen eta herritar guztien esku jartzen lagunduko du.

Euskararen erabilera testuinguru berrietara zabaltzen laguntzen duten beste tresna batzuk, itzulpen-memorien banku publiko zabal batean oinarritutako itzulpen automatikoko sistema eraginkorrak dira. Gainerako administrazio guztien, itzultzaile profesionalen eta herritarren eskura itzulpen-memorien banku publiko bat eta Gaztelania-Euskara itzultzaile automatiko bat jartzeko ahaleginak egiten ari dira, eta aurrerago Euskara-Gaztelania eta Ingelesa-Euskara itzultzaile automatikoa garatuko da.

Kalitatezko produktuak eskainiz euskararen erakarmena eta ospea handitzea indartu beharreko alderdia da, euskara hizkuntza bizia, dinamikoa eta etorkizunerako indartsua izatea nahi baldin bada. Baina beharrezkoa da, orobat, herritarren atxikimenduan eta onespenean oinarrituta bultzatzea aurreramendu hori.

Herritarrei begira, euskarazko tituluak arrazionalizatzea da egitaterik garrantzitsuenetako bat; horretarako sistema sinplifikatu egingo da, eta mantentzen errazagoa bihurtuko da. Beste alde batetik, tituluak ematen dituzten erakundeak gutxitu egin nahi dira, eta hezkuntza-sisteman baliozkotzeko sistema batzuk ezarri, euskaraz egindako ikasketetarako; beste alde batetik, beste Sail eta erakunde autonomo batzuekin lankidetzan beren erregistroak erregistro bateratu batean sartzen ari dira, era horretan administrazio publiko guztiek beren hautaketa-prozesuetarako erregistro bateratu hori erabili ahal izan dezaten.

Eta, azkenik, hizkuntza politika egoki baterako beharrezkoa da egin diren aurreramenduak aztertzea, euskarak eremu edo testuinguru jakinetan duen egoera ezagutzea, ezagutza sozializatzea eta izan diren jokoerak berrikustea eta arrazionalizatzea. Elementu baliagarriak dira horiek guztiak, euskararen etorkizunari berme onez begiratzeko.